

## **"LA CAIXA" ERAKUNDEAREN BEKAK, 2018. DEIALDIKOAK, DOKTOREGO IKASKETAK EGITEKO ESPAINIAKO UNIBERTSITATEETAN**

### ***Deialdiaren ezaugarriak:***

"La Caixa" Gizarte Ekintzak **20 beka** eskainiko ditu, jakintza arlo guztietara irekita, doktorego tesiaren irakurketarekin amaituko diren doktorego ikasketak ofizialak egiteko.

Hauta daitezkeen doktorego programek Europako Unibertsitate Eremura egokituta eta doktorego ikasketak ofizialak arautzen dituen urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuak araututa egon behar dute.

UPV/EHUn eskaintza ondoko estekan dago kontsulta-gai:

<https://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/doktorego-eskaintza>

### ***Beken ezaugarriak:***

- Guztira, diru kopurua 115.000 eurokoa izango da, 36.000 euro hiru urtetan banatuta, eta 7.500 eurotako saria laugarren urtean, baldin eta bekadunak tesia bekaren hirugarren urtea bukatu eta hurrengo 6 hilabeteetan aurkezten badu.
- Beken gehienezko iraupena hiru urtetakoa da, urtez urte luza daitezkeenak.
- Bekadunek 2018ko irail eta urri bitartean egon beharko dute helburuko unibertsitateetan.

### ***Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:***

- Espainiako nazionalitatea izatea.
- Doktorego ikasketak hasi ahal izateko data **2013ko urtarrilaren 1en eta 2018ko uztailaren 31ren artean** dagoela egiaztatu.
- Eskatu diren doktorego ikasketak lehenago matrikulatuta ez egon.
- Lehenago doktore titulua lortu ez izana edo orain doktore titulua lortzeko egoeran izatea.
- Ingeles jakintza egiaztatzea, deialdiko oinarrietan onartutako ziurtagirietako bat aurkeztuta.

### ***Eskaerak aurkezteko epea:***

Epea **2018ko otsailaren 27ko 14:00etan** anaituko da (penintsulako ordua).

### ***Eskaera nola egin:***

Eskaera internet bidez egin beharko dute eskatzaileek, horretarako dagoen aplikazioaren bidez:

<https://www.becaslacaixa.org/index.aspx>

### ***UPV/EHUn bete beharreko prozedura:***

UPV/EHUK kontratuak egingo ditu UPV/EHUko doktorego programetako tesi zuzendariak dituzten onuradunekin, **ez beste inorekin**. Eskatzaileen eginbeharra da beren zuzendariak baldintza hori betetzen dutela ziurtatzea. Programa bakoitzari atxikitako irakasleen zerrenda esteka honetan ikus daiteke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/doktorego-eskaintza>

Ildo beretik, UPV/EHUK **kontratuak egingo ditu unibertsitateko sail edo institutu bati atxikiko diren pertsonekin, ez beste inorekin**.

UPV/EHUri atxiki nahi duten eskatzaileek **halaxe adierazi beharko dute eskaera aurkeztean**, eta eskaera behar bezala beteta bidali beharko dute [pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus) helbidera, mezuaren gaiari "La Caixa bekak" jarrita. Era berean, adierazi beharko dute zein ikertalderi atxiki nahi duten eta nor den proposatutako tesiaren zuzendaria.

**La Caixa Fundazioaren kontaktua:**

Helbide elektronikoa: [becas@fundacionlacaixa.org](mailto:becas@fundacionlacaixa.org)

**UPV/EHUren kontaktua:**

Helbide elektronikoa: [pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus)

Telefonoa: 94 601 8008

**Informazio gehiago:**

<https://obrasociallacaixa.org/es/investigacion-y-becas/programa-de-becas-de-posgrado/doctorado-en-universidades-espanolas/descripcion-del-programa>